

PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

Departamentua:	08 - GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA
Atala:	0810 - Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako Zuzendaritza Nagusia
Programa:	110 - Adinekoen laguntza
Funtzionala:	231 - Gizarte ekintza

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Mendekotasun-egoeran dauden adineko pertsonen bizi-kalitatea sustatzea, haien gizarteratzea eta gizarte-partaidetza sustatuz, eta, gure eskumenaren esparruan, ohiko etxebizitzan mantentzeko behar diren laguntzak emanez, bai eta arreta integraleko zerbitzua erraztuz ere, mendekotasun-egoeran dauden emakumeen eta gizonen premia desberdinak kontuan hartuta eta genero-rolak hausten dituzten neurriak sustatuz.

Egoeraren diagnostikoa:

Gipuzkoan 65 urtetik gorako 161.000 pertsona bizi dira (69.000 G eta 92.000 E). Horietatik 20.300 mendekotasun egoeran daude (6.000 G eta 14.300 E). Mendekotasunari buruzko 39/2006 Legea onartu zenetik, Gizarte Politiketako Departamentuak bere ekintza mendekotasun egoeran dauden pertsonengan kontzentratu behar izan du, mendekotasunik ez duten pertsonen kalterako. Bestalde, nahiz eta ingurunean mantentzea lehenetsi, egoitza zerbitzuek jarraitzen dute baliabide gehienak jasotzen.

Pertsona horietatik Aldundiaren zerbitzu edota prestazio bat jasotzen dutenen proportzioa %89koa da (E %90 eta G %87).

Zerbitzuen izaera kontuan izanda, 2 talde nagusitan sailka daitezke, egoitza zerbitzuak eta gainontzekoak (etxean oinarritutakoak). Lehenengoak astunenak eta konplexuenak dira eta zaintzen ardura instituzio bati transferitzen zaie. Besteetan, etxean mantentzeko laguntzak izanik, zaintzen zama neurri batean familiari egozten jarraitzen zaio, bereziki emakumeei.

Oinarri bezala %100 hartuta, estaldura tasaren %23 egoitza zerbitzuei dagokie eta %77 bestelako zerbitzuei. Generoaren ikuspegitik, emakumeen tasak %23 eta %77 dira hurrenez hurren, gizonenak %22 eta %78. Generoaren ikuspegitik, ia ez dago alderik estaldura-tasetan, baina atzerapen handiagoa ikusten da emakumeek mendetasunaren balorazioa eskatzean, eta horrek baliabideak eskuratzeko aukera atzeratzea ekar lezake. Aztertu beharko litzateke ea joera hori borondatzekoa den ala testuingurua eta bestelako faktore kulturalak eragindakoa.

COVIDak sekulako eragina izan du adineko pertsonengan, eta bereziki mendekotasun egoeran daudenengan. Ez dezagun ahaztu giza talde zaurgarriena dela, eta arreta sarea orokorrean mantendu bada ere, kasu askotan zaintzen antolakuntza aldatu behar izan da. Halaber, ondorio nagusietako bat izan da plazak eta zerbitzuak handitzeko ezintasuna, eta horrek ekarriko duen Gizarte Zerbitzuen Maparen helburuen betetze mailaren moteltzea.

Garapen Iraunkorren helburuei dagokionez programa honek 3 eta 5 helburuak lortzen laguntzen du.

Iturria: GFA, 2020ko urria.

Beharraren deskribapen xehatua:

Mendetasun-egoeran dauden emakumeek eta gizonek eskubidea dute, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen eta Mendetasunari buruzko 39/2006 Legearen arabera, beren desgaitasun- eta mendetasun-egoera arintzeko, komunitatean sartzen laguntzeko eta kultura-, gizarte- eta genero-arrazoiengatik diskriminaziorik ez jasateko zerbitzu eta prestazio batzuk jasotzeko.

Nori zuzendua:

Orokorrean adineko pertsonak eta, bereziki, mendekotasun egoeran daudenak.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Langile propioak, gastu korrante propioak, zerbitzuak eskaintzeko aurrekontua, antolaketa eta plangintza.

2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:

Plangintza, lankidetzak hitzarmenak, kontratazio administratiboa, eskaeren kudeaketa, eta zerbitzuaren

antolaketa propioa, berdintasun arloan lankidetzatza.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Zerbitzuak: bizilekuak, eguneko zentroa, etxeko laguntza, tutoretza, familia harrera, eta zaintzaileei laguntzeko prestazioa.

Programaren arau esparrua:

Euskadiko gizarte zerbitzuei buruzko 12/2008 Legea / Mendekotasunari buruzko 39/2006 Legea

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 2/2015 Foru Araua

3/2007 Lege Organikoa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriakoa

2020-2023 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

Urteko helburua: Herritarrek gizarte zerbitzuak eskuratzeko duten eskubide subjektiboa egikaritzeko bidea bermatzea, modu efizientean hornituz foru eskumenekoak diren prestazioak eta zerbitzuak.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Mendetasuna duten adinekoen zentroetako okupazioaren ehunekoa (plaza mota guztien batez besteko haztatua)	Ehunekoa	>=	90,76	92,00	95,00	98,75
Eskubide subjektiboa duten pertsona atendituen %	Ehunekoa	>=	81,83	81,52	82,33	84,33
Emakumezkoak			82,18	82,16	83,00	85,00
Gizonezkoak			80,99	80,00	81,00	83,00

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Foru eskumeneko zerbitzuak eta prestazioak hornitzea, Euskadiko Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearekin bat.



% 45,57



% 54,21



% 0,22

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	109.681.891,90	8.192.461,00	2.544.274,00	2022/01/01	2023/12/31	
1.1 Ekintza Dauden plazak kudeatzea adineko pertsonentzako bizileku eta eguneko zentroetan	97.151.669,73		2.544.274,00	2022/01/01	2022/12/31	
1.2 Ekintza Zerbitzuak ematea adineko pertsonak etxean mantentzeko xedearekin	12.530.222,17	8.192.461,00		2022/01/01	2023/12/31	

Urteko helburua: Zerbitzu guztietan, pertsonen bizi kalitatea hobetzera bideratutako arreta eskaintzea.						
Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Jasotako gogobetetze inkestetan, batez beste 7 puntu eskuratzea.	Kopurua	>=	9,50	7,00	7,00	7,00
Mendetasuna balioesteko eskabideen izapidea egiteko Epearen urteko batez bestekoa (eskabidea egiten denetik jakinarazpena jasotzen den arte)	Egunak	<=	54	50	40	50
Mendekotasun balorazioa dutenen batezbesteko adin arrakala emakumeen eta gizonen artean	Kopurua	<=	11,60	11,60	11,60	11,20
Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak						
1. Jarduketa ildoak: Prozesuen eta zerbitzuen kalitatea hobetzea eta neurtzea, erabiltzaileen ikuspegitik erreparatuta.						
 % 11,03	 % 65,54	 % 16,54				
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	91.549,99			2022/01/01	2022/12/31	
1.1 Ekintza Adinekoen zentro eta zerbitzuetan egiten diren asebetetze inkestak emaitzak jasotzea eta jarraipena egitea	12.620,00			2022/01/01	2022/12/31	
1.2 Ekintza Adinekoentzako eta/edo desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzetan eta eguneko zentroetan indarkeria matxista prebenitzeko eta tratatzeko protokoloa egitea eta zabaltea.	60.000,00			2022/01/01	2022/12/31	
1.3 Ekintza BVD Balorazioaren tramitazio epea murriztu, antolakuntza eta giza baliabide neurriak hartuta	12.620,00			2022/01/01	2022/12/31	
1.4 Ekintza Emakumeak balorazioa berandu egitearen arrazoiak ikertzeko lantaldea	6.309,99			2022/01/01	2022/12/31	

Urteko helburua: Gipuzkoako gizarte baliabideen sare publikoaren eskaintza premia sozialen bilakaerara egokitzea.						
Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Adinekoentzat sortutako baliabideen batukaria (zentroak badira, plazak; zerbitzuak badira, arreta jaso duten pertsonak) / Mapak baliabide horietarako ezarritako helburuak	Ehunekoa	>=	65,10	24,60	75,00	100,00
Etxean arreta jasotzen duten eta mendetasuna duten 65 urte edo gehiagoko pertsonak / Guztira arreta jaso duten eta mendetasuna duten 65 urte edo gehiagoko pertsonak	Ehunekoa	>=	58,43	57,11	58,00	60,00
Plaza berrien zenbateko metatua foru sarean.	Kopurua	>=	502,00	415,00	580,00	600,00
Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak						
1. Jarduketa ildoak: Gizarte zerbitzuen mapa zabaltzea, lehentasunezkoztat jotzen diren ekipamendu berriak lurralde osoan sustatzea barnean hartuz.						
 % 44,81	 % 55,00	 % 0,19				
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	1.967.070,66			2022/01/01	2022/12/31	
1.1 Ekintza Plaza berriak sortzea adineko pertsonentzako bizileku eta eguneko zentroetan	1.117.287,62			2022/01/01	2022/12/31	
1.2 Ekintza Hazkundera Mapan jasotako adineko pertsonentzako bestelako zerbitzuetan	849.783,04			2022/01/01	2022/12/31	

GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Adineko pertsonak

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Zainketa egokiak jasotzea

Beharraren deskribapen xehatua:

Programa honen hartzailak dira, bereziki, mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonak. Adineko pertsona guztien % 14 dira gutxi gorabehera (143.980 pertsonatik 20.289).

Kuantifikazioa: 333.311,57 (% 0,28)

Ordainketa kredituak: 325.240,75 (% 0,29)

Datozen urteetako gastuak: 8.070,82 (% 0,10)

Kategoria	Kategoria %	Nola	Esleitutako adierazlea
Go.HO.1.2. 2/2015 Foru Araua eta Euskadin indarrean dagoen emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea garatuta, konpromiso politikoa zehaztea.	(% 9,67)	Go.1.2.3. 2/2015 Foru Arauarekin bat etorrira, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika sustatzeko eta garatzeko GFAk bereizten duen aurrekontua progresiboki egokitzea.	
Ek.HO.13.2. Genero ikuspegia jasotzea GFAk sustatzen duen mendekotasunaren eta desgaitasunaren arretako eredu.	(% 43,00)	Ek.13.2.2. Foru baliabide eta zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresa esleipendunen langileek berdintasun alorrean oinarritzko prestakuntza edo prestakuntza espezializatua (arduren arabera) izateko neurriak sustatzea.	
		Emakumeak balorazioa berandu egitearen arrazoiak ikertzeko lantaldea	
Ea.HO.9.3. Emakumeen presentzia handitzea gizarte eta politika arloko ordezkari eta/edo postu publikoetan.	(% 22,33)	Ea.9.3.1. GFaren aitortza publikoko sari, lehiaketa eta beste ekitaldi guztietan emakumeen presentzia handitzea, kontuan izanik lurraldeko emakumeen aniztasuna.	
		Ea.9.3.2. Ordezkaritza eta erabakitze postuetan emakumeen arteko sinergiak sustatuko dituzten ekimenak bultzatzea, kontuan izanik lurraldeko emakumeen aniztasuna.	
		Ea.9.3.3. Zuzendaritza-postuetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua duten edo modu aktiboan sustatzen ari diren erakundeak ikusarazteko laguntza ematea.	

Kategoria	Kategoria %	Nola	Esleitutako adierazlea
I.HO.14.2. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari nola heltzen zaion hobeto ezagutzea, indarkeria egoera horiek berariaz erantzuten ez dituzten foru zerbitzu eta baliabideetatik."	(% 25,00)	V.14.2.2. Pertsona adintsuentzako eta/edo desgaitasunak dauzkaten pertsonentzako egoitzetan eta eguneko zentroetan indarkeria matxista prebenitzeko eta tratatzeko protokoloa lantzea eta ezagutaraztea.	

HIZKUNTZA BERDINTASUNeko PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

1.- Zerbitzu hizkuntza:

Bermatu programa honen baitan eskaintzen diren zerbitzu guztiak Euskaraz ere emateko gaitasuna daukagula:

- Bai departamentutik zuzenean ematen dugun arretan.
- Bai beste entitateen bidez ematen dugunean (kontratu zein hitzarmenen bidezkoak).

2.- Lan hizkuntza:

Programa honen baitan gauzatzen den eguneroko lanean euskararen erabilera indartu, bereziki:

- Ahozko harremanetan.
- Bileretan.
- Idatzizko harremanetan (emailak).
- Txostenen ekoizpenean.

Kuantifikazioa:	597.990,72	(% 0,50)
Ordainketa kredituak:	557.636,61	(% 0,50)
Datozen urteetako gastuak:	40.354,11	(% 0,50)

Kategoria	Kategoria %	Nola
5.2. Erakunde pribatuak: bezeroak (pertsona juridikoak), finantza-entitateak, produktu-eta zerbitzu- hornitzaileak, etab.	(% 100,00)	Oinarrietan hizkutz irizpideak txertatuko dira.

GJH


Beharraren deskribapen xehatua:


Garapen jasangarriko helburu hauetan egindako ekarpenagatik nabarmentzen da programa:

1. helburua: pobrezia amaiera ematea modu guztietan eta mundu osoan.
2. helburua: bizitza osasuntsua bermatzea eta adin guztietan ongizatea sustatzea.
5. helburua: genero-berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahaldundzea.
16. helburua: garapen jasangarriko gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzea, guztiontzako justiziarako sarbidea erraztea eta kontuak emango dituzten erakunde eraginkor eta inklusiboak eraikitzea maila guztietan.

Kuantifikazioa: 119.926.663,56 (% 100,20)

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
 1-POBREZIA DESAGERRARAZTEA Pobrezia mota guztiak desagertzea mundu osoan.		50.546.840,75	4.047.075,73
Helburua	1.3X2 - Aldi berean gizarte- eta osasun-arreta behar duten pertsonen arreta bermatzea.	50.546.840,75	4.047.075,73
Jarduketa ildoak			
	Foru eskumeneko zerbitzuak eta prestazioak hornitzea, Euskadiko Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearekin bat.	49.665.301,96	4.047.075,73
	Gizarte zerbitzuen mapa zabaltzea, lehentasunezko zat jotzen diren ekipamendu berriak lurralde osoan sustatzea barnean hartuz.	881.538,79	
 3-OSASUNA ETA ONGIZATEA Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.		60.853.165,41	4.137.192,81
Helburua	3.X3 - Gipuzkoako adinekoen eta ezintasunen bat duten pertsonen bizi kalitatea hobetzea.	60.853.165,41	4.137.192,81
Jarduketa ildoak			
	Foru eskumeneko zerbitzuak eta prestazioak hornitzea, Euskadiko Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearekin bat.	59.761.180,55	4.137.192,81
	Prozesuen eta zerbitzuen kalitatea hobetzea eta neurtzea, erabiltzaileen ikuspegitik erreparatuta.	10.096,00	
	Gizarte zerbitzuen mapa zabaltzea, lehentasunezko zat jotzen diren ekipamendu berriak lurralde osoan sustatzea barnean hartuz.	1.081.888,86	
 5-GENERO BERDINTASUNA Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahaldundzea.		319.052,40	8.192,46
Helburua	5.2 - Emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak ezabatzea, baita eremu publiko eta pribatuan gertatzen diren ere, salerosketa eta sexu esplotazioa eta beste esplotazio mota batzuk barne.	60.000,00	

GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
Jarduketa ildoak			
	Prozesuen eta zerbitzuen kalitatea hobetzea eta neurtzea, erabiltzaileen ikuspegitik erreparatuta.	60.000,00	
Helbubura	5.4 - Ordaindu gabeko zaintzak eta etxeko lanak aitortzea eta baloratzea gizarte babeseko zerbitzu publiko, azpiegitura eta politiken bitartez, eta etxean eta familian erantzukizun partekatua sustatzea.	259.052,40	8.192,46
Jarduketa ildoak			
	Foru eskumeneko zerbitzuak eta prestazioak hornitzea, Euskadiko Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearekin bat.	255.409,40	8.192,46
	Gizarte zerbitzuen mapa zabaltzea, lehentasunezko zat jotzen diren ekipamendu berriak lurralde osoan sustatzea barnean hartuz.	3.643,00	
	16-BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK	15.144,00	
	Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.		
Helbubura	16.06 - Kontuak emango dituzten erakunde eraginkor eta gardenak sortzea maila guztietan.	15.144,00	
Jarduketa ildoak			
	Prozesuen eta zerbitzuen kalitatea hobetzea eta neurtzea, erabiltzaileen ikuspegitik erreparatuta.	15.144,00	
Guztira		111.734.202,56	8.192.461,00

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2021	2022	Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros				
			2023	2024	2025	2026 eta hurrengoak/ 2026 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	1.848.461,00	1.262.000,00					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	27.455.216,00	26.673.882,00					
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS							
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	81.987.295,00	83.805.051,00	8.192.461,00				8.192.461,00
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS							
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	111.290.972,00	111.740.933,00	8.192.461,00				8.192.461,00
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES							
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL							
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital							
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS							
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS							
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras							
Guztira / Total	111.290.972,00	111.740.933,00	8.192.461,00				8.192.461,00

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	1.262.000,00				1.262.000,00	
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	26.673.882,00				26.673.882,00	
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	83.804.630,55		8.192.461,00		91.997.091,55	
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	111.740.512,55		8.192.461,00		119.932.973,55	
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES						
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL						
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital						
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total	111.740.512,55		8.192.461,00		119.932.973,55	

Sarreraren kapituluak / Capítulos de ingresos	2021	2022	Gastuari lotutakoak / Afectados a gasto
1. ZUZENEKO ZERGAK/ IMPUESTOS DIRECTOS			
2. ZEHARKAKO ZERGAK/ IMPUESTOS INDIRECTOS			
3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK/ TASAS Y OTROS INGRESOS			
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	7.151.854,00	7.411.102,00	2.544.274,00
5. ONDARE SARRERAK/ INGRESOS PATRIMONIALES			
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	7.151.854,00	7.411.102,00	2.544.274,00
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA/ ENAJENACION DE INVERSIONES REALES			
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL			
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital			
8. AKTIKO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS			
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS			
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras			
Guztira / Total	7.151.854,00	7.411.102,00	2.544.274,00